



URBASONeko ENEMA PRESTATZEA ETA JARTZEA

ZERTAN DATZA TRATAMENDUA?

Kortikoideek heste lodiko mukosa ultzeratuan zuzen-zuzenean eragitea da Urbasoneko enemak jartzearen helburua. Enema ahalik eta handienei eusten saiatu behar duzu, eta ahalik denbora gehien, eragin antiinflamatorio onuragarria behar bezalakoa izan dadin. Horrela, zure gaixotasunaren sintomak desagertuz joatea lortuko duzu.

NOLA PRESTATU BEHAR DUT URBASONeko ENEMA?

Ospitaleratze-aldian zuri eta/edo zure familiari irakatsiko zaizu(e) nola aplikatu behar den Urbasoneko enema. Hona hemen teknika hori:

- Garbitu eskuak medikazioa prestatzen hasi aurretik, infekziorik transmititzea eragozteko. Gero, prestatu behar dituzun material eta sendagai guztiak:
 - Seruma
 - Urbason (20 mg-ko anpoila bat)
 - Serum-ekipamendua edo -sistema.
 - 50 cc-ko xiringa.
 - Orratza (40 x 11).
 - Ondeste-zunda, 8 zenbakikoa.
 - Lubrifikatzailea.
- Jarri eskuoihal garbi bat gertu, prestaketa guztia egiteko.
- Ireki Urbasoneko anpoilak. Xurgatu ontziko likidoa (injeziorako ura) eta sartu likidoa substantzia-hautsa duen anpoilan. Ondo disolbatuta dagoenean, xurgatu berriro xiringa bera erabiliz.
- Sartu likido hori serumean, kolore marroiko goma zulatuz –serumaren erdian dago–. Gero, astindu leun, guztiz disolba dadin.
- Behin orratza erabili eta gero, estali.
- Konektatu seruma sistemara, eta sistema zundara, eta purgatu sistema eta zunda.
- Lubrifikatu ondeste-zunda, errazago sartzeko.
- Jarri ekipamendua ohe-ertza baino 50 cm gorago, gutxi gorabehera.

NOLA JARRI BEHAR DUT URBASONeko ENEMA?

- Jarri ohean etzanda, ezkerreko alboaren gainean, eta zangoak tolestuta, jarrera horretan errazagoa baita likidoa sartzea. Hartu ondeste-zunda puntatik, eta sartu uzkian, ahalik barrenen, behartu gabe.
- Ireki serum-ekipamenduaren giltza, eta hasi enema jartzen geldo-geldo. Gogoan izan, 45etik 60ra minutu iraun behar duela.
- Amaitzean, itxi serumaren giltza eta kendu ondeste-zunda.

ZER EGIN BEHAR DUT ENEMA JARRI ONDOREN?

- Egon atsedena hartzen, 60-90 minutuan.
- Saiatu enemari eustean, ahalik denbora gehien.
- Erreparatu eginkariei.

NOLA IZAN MATERIALA EGOERA ONEAN?

- Alta hartzean edo kanpo-konsultan, erizainak behar duzun materiala emango dizu:
 - Suero-ekipamendua
 - Xiringa
 - Orratza
 - Zunda.
- Material hori zazpi aldiz arte erabil daiteke, baldin eta higiene-egoera onean badago. Horrela ez bada, bota materiala.
 - 50 cc-ko xiringa erabat hondatu arte erabil dezakezu.
 - Orratz-kontainera. Betetzean edo tratamendua amaitzean, eraman kanpo-konsultara (tratamendua kontsulta horretan egiten baduzu) edo zure osasun-zentrora.
 - Seruma. Erabili bat dosi bakoitzerako.
- Ondeste-zunda ur eta xaboiz garbitu behar duzu, eta gero, ura sartu behar diozu 50 cc-ko xiringaz, guztiz eragin arte.
- Gorde material guztia eskuoihal batean bilduta, hurrengo erabilera arte.

Berrikusita: 2018ko urtarrila

IO-DIGESTIBOA-17

Informazio gehiago nahi baduzu, galdetu arreta ematen dizuten profesionali.